




AZTERKETA

Sorkuntzari Laguntzeko Politikak



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2010

Aurkibidea

Aurkezpena

3

I. Zatia

NAZIOARTEKO BEGIRADA

4

1. SORKUNTZAN LAGUNTZEKO POLITIKAK: LABURPEN GISA

6

1.1. Sorkuntza eskaintzan laguntzea

7

1.2. Sorkuntza eskarian laguntzea

16

1.3. Sorkuntza jardueraren gizarte eta lan baldintzetan laguntzea

25

II. Zatia

BEGIRADA EAETIK: LANERAKO JOKALEKU POSIBLEETARAKO PROPOSAMENA

29

2. EPE MOTZ, ERTAIN, ETA LUZERAKO JOKALEKU POSIBLEAK

32

2.1. Sorkuntza eskaintza: eztabaidarako elementuak

32

2.2. Sorkuntza eskaria: eztabaidarako elementuak

36

2.3. Gizarte eta lan baldintzak: eztabaidarako elementuak

37

Eranskina

INFORMAZIO ITURRIAK

40

AURKEZPENA

Kulturaren Euskal Behatokiaren esparruan egindako Sorkuntzan Laguntzeko Politiken txostenaren laburpena dugu dokumentu hau.

Hainbat herrialdetako jardunbide egokiak, eta oro har, sorkuntzan laguntzeko herrialde horietan gauzatutako politiken erreferentziak bilatzeko ikuspegi «konparatu» bat oinarri hartuz sortu da adierazitako azterlan hori. Eta erreferentzia horiek EAEn gaur egunean ditugun politiken perfektionamenduari buruzko hausnarketa- eta eztabaida-prozesua abian jartzeko abiapuntu bat eskain dezaten lortzeko xedearekin.

Irismen eta xede horietatik abiatuz, laburpen-dokumentu hau bi zatitan banatu dugu:

Lehenak —Nazioarteko begirada deritzonak—, herrialdeek egindako hainbat hurbilketa monografikoren zeharkako irakurketa eskaintzen du.

Bigarrenak —Begirada EAetik deritzonak—, informazio horiei balioa emateko jomuga du, gure errealitatera proiektatutako ikaskuntzei dagokienez. Horretarako, esku-hartzeen egitura —nazioartean aurkeztutakoa— EAera ekartzen du, epe motz, ertain, eta luzerako lan jokaleku posibleak iradokiz, egun sorkuntzarako dugun laguntza-esparrua berritzeko eta perfektionatzeko erakunde-hausnarketarako prozesu bat abiarazteko laguntza-gida gisa.

I. ZATIA NAZIOARTEKO BEGIRADA

1. SORKUNTZAN LAGUNTZEKO POLITIKAK: LABURPEN GISA

1.1. SORKUNTZA ESKAINTZAN LAGUNTZEA	8
1.1.1. Erosketa Funtsak	8
1.1.2. Konpentsazio Funtsak	9
1.1.3. Diru-laguntzak eta bekak	10
1.1.4. Sariak	14
1.1.5. Elkarreak	14
1.1.6. Laguntza Pribatuko Funtsak	15
1.2. SORKUNTZA ESKARIAN LAGUNTZEA	17
1.2.1. Kultura-kontsumoaren hobari ekonomikoa	18
1.2.2. Eskolan/eskolatik gauzatutako ekintza: haurra eta gaztea lan-kolektibo estrategiko gisa	20
1.2.3. Arte amateurra eta arte prestakuntza ludikoa	23
1.2.4. Goi-mailako arte-prestakuntza	25
1.3. SORKUNTZA JARDUERAREN GIZARTE ETA LAN BALDINTZETAN LAGUNTZEA	26
1.3.1. Lan-arloko legedia eta gizarte-babesa	27
1.3.2. Zerga-tratamendua	28
1.3.3. Esperientzia zehatz bat: Québecen kasua	29

Jardunbide egokiak bilatzeko ikuspegi «konparatua» honako herrialde hauen bitartez zehaztu da:

- Frantzia, kultura-politika publikoak garatzearen erreferentzia historiko gisa.
- Britainia Handia, Frantziako ereduaren kontrapuntu (kultura anglosaxoiarena) gisa.
- Suedia, Danimarka eta Norvegia, Eskandinaviako eredu deritzonaren ordezkari gisa.
- Holanda, aipatutako eruedetako ezeini unibokoki atxikitzen ez zaion herrialde gisa eta gizarte-dinamika sortzaile konplexu eta ireki baten irudi gisa.

Hori horrela, herrialdeen arteko erakunde-konparazio gehienetan gertatu ohi den bezala, kanpo-behaketak eskainitako informazioaren balioa abiapuntutzat hartuz, informazio hori interpretatzeko zuhurtasun logikoa txertatzea beharrezkoa dela nabarmendu behar da. Zenbait kasutan, lortutako informazioa zatikatua eta mugatua izatearekin lotu ohi da zuhurtasun hori, eta bereziki, behatutako erakunde-errealitateen, erabilitako izendapenen eta formulen eta erakunde- eta gizarte-eragileen ohituren eta jardunbideen (herrialde bakoitzak berezkoak dituenak) distantziarekin eta azaleko ezagutzarekin; hori dela- eta, horiek azkenik ulertzeko eta hurbileko errealitatearekin alderatzeko prozesuaren ondorioa gutxi gorabeherakoa da beti.

1. SORKUNTZAN LAGUNTZEKO POLITIKAK: LABURPEN GISA

Sorkuntzan laguntzeko politikek konplexua eta dimentsio anitzekoa den lana dakarte, eta lan horrek hainbat alderditako esku-hartzeak hartzen ditu barnean:

- «Sorkuntza ESKAINTZAN» laguntzeko jarduna: hots, sortzaileari emandako laguntza, eta baita sortzaileak gauzatutako jardueran eta bere lanari balioa emateko ekintzan emandakoa ere.
- «Sorkuntza ESKARIAN» gauzatutako jarduna: hots, kontsumorako baldintzak eta estimuluak sortzea eta sorkuntzako kultura-produktuaren gizarte-balioztapena gauzatzea.
- «Sorkuntza-jarduera gauzatzeko GIZARTE ETA LAN BALDINTZETAN» egindako jarduna, lan-arloko, zerga-arloko eta beste hainbat arlotako zuzenbide- eta administrazio-eragileen eraginpeko jarduera ekonomiko gisa.

Hiru ikuspegi horiek osotasuna sortuz gainjartzen dira, eta esku-hartzearen deskribapen poliedriko eta sinergikoa osatzen dute, sorkuntzak dituen dimentsio guztiak modu eraginkor eta orekatuan konbinatzeko jomuga duen laguntza-koktel moduko bat, hots, honako hauek konbinatzeko jomuga duena: batetik, artista, pertsona, haren jarduera eta lana, bestetik, haren gizarte-balioa eta haren kontsumorako sustapena (ekonomia-ondasun gisa) eta azkenik, ekonomia-ondasun horren ekoizpenaren «laneko» jarduerak dakartzan gizarte-alderdiak. Era berean, herrialde bakoitzaren eta horien usadioen eta erakunde-kulturen arabera, adierazitako hiru alderdi horietako bakoitzean aplikazio-formula edo -aldagai ugari daude, espezifikotasun txikiagoarekin edo handiagoarekin, eta beraz, hiru alderdi horiek desberdinak izan daitezkeenez, duten eraginkortasuna ere handiagoa edo txikiagoa izan daiteke, eta beste erakunde-errealitateetara neurri handiagoan edo txikiagoan transferi daitezke.

Ondoren, horietako bakoitzerako zeharkako begirada bat aurkeztuko dugu, planteamendu horien berdintasunak eta espezifikotasunak laburbiltzen saiatuz.



1.1. SORKUNTZA ESKAINTZAN LAGUNTZEA

Herralde bakoitzaren desberdintasunez eta berezkitasunez haratago, Sorkuntza Eskaintzarako laguntza, funtsean, honako ildo hauetan zehazten da¹:

- a. Erosketa funtsak.
- b. Konpentsazio funtsak.
- c. Diru-laguntzak eta bekak.
- d. Sariak.
- e. Elkarreentzako laguntzak.
- f. Laguntza pribatuko funtsak (zerga-tratamendua).

Sorkuntza-eskaintzan laguntzeko edo sorkuntza-eskaintza hori sustatzeko lehen adierazi ditugun ildo horiek erabateko eragina dute eskaintza horretan, hura modu segmentatu edo desberdinduan ulertzeaz haratago, sorkuntzari, ekoizpenari eta hedapenari dagokienez. Fase edo segmentu horien guztien zeharkako argamasa gisa jokatzeko du sortzaileak, trinkotuz eta benetako bihurtuz (produktu bat), hots, sortzailearen lana. Horrela, sorkuntza-eskaintzarako laguntzaren oinarria, batzuetan, pertsonari eusteko ekintza da, eta horrekin batera, pertsonaren arte-ekoizpenaren baldintzei edota haren lana, hark sortutako produktua hedatzeari eta/edo merkaturatzeari eusteko ekintza; horrela, osotasunaren zati bilakatzen dira horiek, hots, sorkuntzarako laguntzaren zati.

1.1.1. Erosketa funtsak

Artistei zuzeneko laguntza ekonomikoa emateko —haien lanak erosiz— bideetako bat osatzen dute erosketa-funtsek, eta aldi berean, haien lanak, ospea eta proiektzioa babesteko formula bat². Bi ildo bereizitan nabarmentzen dira, ondare-funtsekin lotutako ildoan eta arte-lanak foro publiko eta/edo irekietan erakustearekin zerikusia duen ildoan.

Frantziaren kasuan, Arte Garaikidearen Funtz Nazionala —FNAC— eta Arte Garaikidearen Eskualde Funtzak —FRAC— dira nabarmentzekoak; FNAC funtsak ikusizko arteak, argazkilaritza eta diseinua erostea, hedatzea eta kontserbatzea finantzatzen du 1976az geroztik hona.

Erosketa horien orientazioa honako hiru helburu hauek kontuan hartuz antolatzen da: artista gazte berriei laguntza ematea, sorkuntza-aitorpena eta -heldutasuna lortu duten artista gailenen ondarea erostea, eta azkenik, nazioarteko artearen mugimenduak ordezkatzeko.

¹ Herralde desberdinetako egile-eskubideen kudeaketaren alderdia azterlanetik kanpo utzi da, eta baita beste hainbat alderdi ere, esate baterako, herralde desberdinetako *droit de suite* (2001) deritzonaren zuzentarauaren transposizioa.

² Erosketa Funtzak badira ere, kultura-sektoreari laguntza emateko xedea dutela ulertzen da, eta ez arte- eta kultura-produktuaren eskariaren aldeko kondizioak edo estimuluak sortzeko laguntza ematekoa.

Irekiagoa den dimentsio batean jokutzen du «artearen % 1» kontzeptuak edo atalak; eraikin publikoak eraikitzeko, berritzeko eta handiagotzeko diru-zenbatekotik bereizten den ehunekoa dugu hori, eraikin horietarako espezifikoki pentsatutako lanak erostera bideratzen den ehunekoa, hain zuzen ere.

Ildo horretatik, honako hauen jardunak nabarmentzekoak dira: Suedian gauzatutakoak; Arteetarako Kontseilu Publiko Nazionalaren bitartez, arte garaikideko lanak erosten ditu herrialde horrek, estatuaren eraikinetan ikusgai jartzeko, eta horretaz gain, esku-hartze artistikoagatiko gastuak —gobernuz kanpoko eragileek antzeko jardunetarako eragiten dituztenak— batera finantzatzen ditu. Norvegiar gauzatutakoak; Eraikin Publikoetako Arterako Fundazio Nazionalak eta Norvegiako egungo literatura —egungo Fikzioa eta Ez-fikzioa— erosteko Programak —Artearen Kontseiluak gauzatua— jokutzen dute herrialde horren kasuan. Eta Danimarkak gauzatutakoak; kasu horretan, Arteetarako Danimarkako Fundazioak ikusizko arteetako, artisautzako eta diseinuko lanak erosten ditu, erakunde eta eraikin publikoetan jartzeko.

Britainia Handian, bestalde, *Own Art* Programa ageri zaigu ekimen aipagarri gisa, biziagoa den eta erakundeekin hain lotuta ez dagoen merkatu-kulturarekin bat etorritik. Antzeko ekimena dugu hori (Erosketa funtsa), baina kontsumo-merkatu pribatuaren bitartez bideratzen da, arte-erosketa pribatuaren aldeko finantza-laguntzaren bitartez. (ikus 1.2. kapitulua: sorkuntza eskarian laguntzea).

Holandaren kasuan, azkenik, Museo Erosketetarako Funts Nazionalak jokutzen du, Holandako Banku Zentralaren ekimenez, nahiz eta maila eta izaera desberdina duen.

1.1.2. Konpentsazio funtsak

Erosketarena ez bezala, konpentsazio-funtsen xedea sortzaileari bere lanaren erabilera publikoagatik ordaintzea da. «Mailegu publikoengatiko eskubideen» sistema bat administratzeko EBko herrialdeek orokorrean bideratutakoa dugu horien artean ezagunena; programa horrek idazleei ordaintzen die, idatzitako liburuen mailegu kopuruaren arabera. Horien osagarri gisa, ildo bereko hainbat esperientzia nabarmendu behar dira:

Britainia Handiaren kasuan, lehen adierazitakoaren antzeko sistema bat abian jarri zen Ingalaterran eta Galesen, ikusizko arteetako lanak toki publikoetan ikusgai jartzeagatiko ordainsari gisa.

Suedian, berriz, idazleei, itzultzaileei, ilustratzaileei eta kultura-kazetariei zuzendutako Egileen Funtsaren bitartez laguntza ematen die gobernuak banakako artistei. Era berean, merkataritza-arlotik kanpoko erakundeek zenbait artistaren lanak ikusgai jartzeagatik artista horiei ordaintzeko funtsak ere badaude. Bestalde, Norvegian ere ikusizko arteetako lanengatik konpentsazio-funts bat dute.

1.1.3. Diru-laguntzak eta beka

Sorkuntzan laguntzeko esku-hartze publiko guztiak diru-laguntzen eta beken bitartez zehazten dira; herrialdearen arabera desberdinak izan daitezkeen erakunde-formen bitartez bideratzen dira diru-laguntza eta beka horiek erakunde-alorrean.

Horien ezaugarri orokor gisa, askotariko alderdiei estaldura ematen diete; alderdi horiek hiru norabide bereizitan bideratzen dira:

- Batetik, finantzaketa prestakuntzan, ikerketan eta bidaletan, erakusketen edota hedapen-alderdien finantzaketa, edota artisten bizitokietako egonaldiak erraztea.
- Bestetik, proiektu espezifikoek ekoizpena, eta horiek hainbat ekoizpen-zentrotan hartzea.
- Eta azkenik, sortzaileari laguntzea, enpleguaren eta kultura-enpresaren ikuspuntutik.

Herrialde bakoitzak bere moduan bilakatzen ditu horiek eredu; horrela, planteamendu bereziak nabarmendu ditzakegu, lehen bi bideen aldeko apustu handiagoa egitearen (Frantziaren kasuan bezala) edota hirugarren ikuspegi ere garrantzitsuen arabera.

Frantzia, esate baterako, ikuspegi klasiko eta hurbilagoaren adierazgarri dugu, eta horrelako laguntzak bi bide nagusitan bideratzen ditu gutxienez: Kultura eta Komunikazio Ministerioak edo/eta hainbat sektore-erakunde espezifikoak (hala nola, Zinematografiaren Zentro Nazionala, Liburuaren Zentro Nazionala, eta abar) emandako diru-laguntzen eta beken bitartez, edota ekoizpen-zentroen bitartez edo/eta ekoizpenean lagunduz.

Lehen bideetatik (Ministerioa eta Sektore Zentro Nazionalak) sortzaileen ekintza-esparruei ia erabateko estaldura ematen zaie: arte eszenikoei (baita antzerki-konpainietarako, koreografia-konpainietarako, zirkurako eta jazz-taldeetarako laguntzak ere, besteak beste),

proiektu espezifikoak osatzeko edota artisten bizitokietan parte hartzeko diru-laguntzak edo bekak jasotzen dituzten artista plastikoei, diseinatzaileei eta artisauei, literatura-egileei eta editoreei, edota zinemari eta ikus-entzunezko sektoreari, horiek ere laguntzak baitituzte.

Bigarren bideei dagokienez, Arte Garaikideko Zentroak nabarmendu behar ditugu, erakusketen, argitalpenen, ikerketa kritikoaren, prestakuntzaren, lanen ekoizpena abian jartzearen eta artistak hartzeko erraztasunen (30 zentrotik gora 16 eskualdetan) bitartez ikerketa- eta esperimentazio-jarduerak gauzatzen baitituzte. Eta baita Sorkuntza Garaikideko Zentroa ere, bereziki sortzaile gazteei zuzendua.

Enpresa- eta lan-dimentsiotik sorkuntzari bideratutako laguntzarekin lotutako ikuspegitik, bestalde, diru-laguntzen edo beken bitartez eskainitako laguntza-ildoen kapituluan ez da beste zenbait herrialderen kasuan bezain argi ageri, segur aski, artistari zuzendutako gizarte-babeserako sortu den sistema (langabezia eta gizarte-segurantza) gainerako langileenaren parekoa delako.

Britainia Handiak, bestalde, Ingalaterrako, Eskoziako, Galeseko eta Ipar Irlandako Arteen Kontseiluen edota Erresuma Batuaren Zinema Kontseiluaren bitartez bideratzen ditu laguntza asko.

Arteetarako Kontseiluek ikusizko arteen, arte eszenikoen, musikaren, literaturaren, ikus-entzunezko sektorearen, artisautzaren eta abarren ekintza-esparruaren zati handi bat betetzen dute; hala ere, esku-hartzeko ildoak askotarikoak dira —diru-laguntzak, bekak, artisten bizitokiak eta atzerriko ekitaldietan parte hartzea errazteko bidaia-laguntzak, komunitatearentzat edota hezkuntzan lan egiten duten artistentzako laguntzak, eta abar—.

Britainia Handiko egitura-euskarri horrekin batera, enplegu-politikekin lotutako programak ere agertu dira, esaterako, Musikarientzako Itun Berria; langabezian dauden musikari gazteak (aldaera guztietakoak, hala nola, konpositoreak, instrumentistak, abeslariak, kanta-idazleak, Djak, eta abar) sektorean autonomo edota soldatapeko gisa sartzea da adierazitako Itun horren jomuga. Eta baita beste hainbat ahalegin ere, esate baterako, NESTA (teknologiaren eta arteen zientzietarako Funts Nazionala) funtsak egindakoak; enpresa-espirtua estimulatzeko bide berrietan inbertitzen du funts horrek.

Jardun-ildo horiek *Imperative Creative* txostenean jasotako gomendioekin bat datoz; 2000n Irlandako Arteen Kontseiluak eta Ipar Irlandako Arteen Kontseiluak sustatu zuten txosten hori,

zeuden programen inpaktua ebaluatzeko eta etorkizuneko orientazioak ezartzeko. Azken horien artean, banako artistei hainbat urtetarako laguntzak eta finantza- eta marketin-trebetasunetako prestakuntza ematearen aldeko apustua egin zen, eta baita laguntzen inpaktua modu erregularrean kontrolatzeko sistemak eta aldian behingo berrikuspenak ezinbestean egitearen aldekoa ere.

Bestalde, Eskandinaviako ereduak tradizionalki landu izan du banako artistei zuzendutako laguntza-ildoak, eta Frantziako laguntzen antzeko planteamendu klasikoak konbinatzen dira eredu horretan, arte-ekoizpenaren estimuluan (lan-ikuspegitik) eta haren enpresa-jardueraren iraunkortasun ekonomikoan aurrera egiten duten orientazioekin eta lehen adierazitako *Imperative Creative* txostenean adierazitako gomendioekin bat etorritik.

Horrela, Suedian, esate baterako, Arteen Laguntzarako Batzordeak baterako neurriak lantzen ditu ikusizko arteetarako, musikarientzako, konpositoreentzako eta egileentzako, hala nola, urtebeteko edota 2, 5, edo 10 urteko iraupeneko lan-bekak, sortzaile kopuru mugatu baten diru-sarreretarako bermeak, proiektuetarako laguntzak, bidaietarako eta bizitokietarako laguntzak edota nazioarteko trukeetarako bekak.

Artearen esparru desberdinetan alda daitezkeen (bakoitzaren ezaugarrien arabera) plan espezifikoak ere badaude. Horrela, antzerki independenteari, musika- eta dantza-konpainiei, artisten taldeei eta lankidetzak-estudioei, lankidetzako arte- eta artisautza-dendei eta artisten jabetzako galeriei nazioartean laguntzak emateko ardura du Suediako Arteetarako Kontseiluak.

Suediako Arteetarako Kontseiluak, halaber, artisten zentroetara eta hainbat diziplinako (antzerkia, dantza, musika, ikusizko artea, arte aplikatua, argazkilaritza, literatura eta zinema) ekoizpen-tokietara ere laguntzak bideratzen ditu. Laguntza horiek Enpleguaren Agentzia Nazionalaren funtsen bitartez koordinatzen dira, eta Agentzia horren finantza-sustapena jasotzen dute, artista profesionalentzako enplegu-aukerak irekitzeko helburua duten heinean. Era berean, Kontseiluak tailer kolektiboetarako ekipo espezializatua erostea ere finantzatzen du.

Norvegian, 90eko hamarkadaren ondoren, Laguntzen orientazioak aldaketa handia izan zuen. Ordura arte, lan jakin batengatik lan horren artista saritzera bideratuta zeuden. Geroago, arte-ekoizpenaren estimulura modu irekiagoan bideratu dira laguntzak, eta zirkunstantzia hori dela-eta, laguntzak denbora-egonkortasun handiagora —hainbat urtetarako— bideratzen dira, enpleguaren kontzeptura hein handiagoan lotzeaz gain. Horrela, honako formula hauek agertu ziren:

- Diru-sarrera bermatuak: ezarritako gutxieneko soldataren diru-sarrera berbera, artistaren berezko diru-sarreraren ehuneko jakin bat kenduz. Hori lortu ondoren, estatus hori erretiro-adinera arte luzatzen da. Diru-sarreraren bermeak artearen modalitate guztiak hartzen ditu barnean. Kategoria bakoitzerako kuota espezifikoa ezartzen dira, eta ikusizko artistek osatzen dute talde handiena.
- Lanagatiko laguntzak, 1-5 urtekoak: diru-sarreraren bermearen antzekoa, baina denbora-mugarekin, proiektu jakin batera lotutako sortzaileei zuzentzen zaie, edota lanaldi osoa sorkuntza-lanean eman nahi duten artistei.
- Artista gazteentzako laguntzak: artista gisa ezartzeko fasean dauden 35 urtetik beherako artistei ematen zaizkie, urtebeterako edota 2 edo 3 urteko denbora-tarterako.
- Eratzeko laguntzak, 40 urtetik beherako sortzaileei (inbertsio-gastuak ordaintzeko, hots, tailerrak, eta abar) eta hasierako eratze-fasean dauden idazleei, itzultzaileei eta abarrei zuzendua, eta Ordezkapenagatiko Laguntzak: sorkuntzaz gain, artearen mundutik kanpoko lanak ere egiten dituzten artistei zuzenduak, horiek lanaldi osoa arte lanean eman dezaten errazteko, eta Materialetarako Laguntzak, gauzatutako jardueraren berezko gastu arruntak finantzatzeko.

Horrelako laguntzekin batera, arruntagoak diren beste hainbat ere badaude, hala nola, arte-heziketa osatzearekin, bidaiekin eta atzerriko prestakuntzarekin edo erakusketekin lotutakoak, eta baita sektore ardaztuagoko beste hainbat ere (zinema, eta abar).

Danimarkan, askotariko laguntza-ildoez gain, Fundazio Pribatuetako laguntzek garrantzi handia hartu dute; horri buruzko legediari eta fundazioetarako, enpresetarako eta banakoentzako txertatzen dituzten zerga-abantailekin lotuak. Balioetsi denez, Danimarkako kultura-erakundeek kudeatutako finantza-bolumenaren % 8,7k jatorri pribatua du. Funtse pribatu horien % 75 ekipamenduak eraikitzen bideratzen da (% 6,5), eta gainerakoa kultura- eta arte-jarduerarekin lotuta geratzen da (% 2,2).

Azkenik, Holandako laguntzek partzelazio handia dute dibertsifikatutako laguntza-funtsei edo -ildoei dagokienez —berrantolatze-prozesuan edo sinplifikazio-prozesuan—, eta horretaz gain, berrantolatzeko jomuga dute, kultura-ekoizpena enpresa-jarduera eta enplegu gisa bideratzearen ildo beretik. Laguntzen mikrosegmentazioa edo partzelazio handia irudikatzea garrantzitsua da, laguntza-erakundeak edo -ildoak zerrendatuz: Prentsa Funtse, Literatura Funtse, Musikari Konpositoreak, Ikusizko Arteak, Holandako kulturaren sustapena eta irratidifusioa (telebista eta irratia), Kazetaritza Proiektuak, Literatura Ekoizpena eta Itzulpena, Arte Eszenikoak eta Arte Amateurra, Merkataritza Laguntza eta Programazioa, Arkitektura,

Zaharberritzea, Zinema, Mondriaan (ikusizko arteak hedatzea eta saltzea). 2007an horietako hiru bateratzea planteatu zen (musika sortzailea, arte eszenikoak, merkataritza laguntza eta programazioa).

Egungo politikak sustatzen duen orientazioari dagokionez, Kulturarako Estatu-idazkariaren adierazpenak aipatu behar dira: «kultura-merkatua modu zehatzean garatu behar dugu, eta artistak haren enpresa-espirtua dinamizatzeko hornitu eta estimulatu behar ditugu».

1.1.4. Sariak

Sariak laneko konstantea edo laneko ohitura dira herrialde gehienetan, ekimen publikotik nahiz pribatutik. Sari mediatikoenek artistari eta bere lanei gailentasunerako aukera emateaz gain, sari askoren ezaugarriak beken ezaugarriekin lotuta daude (finantza-laguntza, praktika-bekak, bidaietarako laguntza, edota lan-beka).

Frantziaren kasuan, inpaktu mediatiko handiko sariak garrantzi eta tradizio handia lortzen dute, eta zerrenda oso luzea da. Holandaren kasuan, 700 saritik gora daude, garrantzi- eta inpaktu-maila desberdinetakoak. Laguntza-funtsen kasuan bezala, herrialde horrek nolabaiteko berrantolatze- edo murrizte-prozesu bat izan du azken urteotan.

1.1.5. Elkarteak

Herrialde gehienek —bereziki, Eskandinaviaren kasuan— sortzaile-erakundeek «independentzia» babesteko diskurtso formalak dute, eta horrelako erakundeei finantzaketa edo laguntza formal edo sistematikoa emateko egitura-planteamendurik ez finkatzea dakar diskurtso horrek.

Alabaina, praktikan, kasu gehienetan salbuespenak eta hainbat laguntza-formula edo-planteamendu agertzen dira: emandako zerbitzuengatik ordainsari gisa (esate baterako, informazio-bankuen kudeaketa, sortzaileei beren jardueran laguntza eta orientazio ematea, artistentzako bizitokien kudeaketa, eta abar, Britainia Handiko kasuren batean bezala), nahiz hainbat forotan parte hartzeko formula gisa (bidaiak, egonaldiak, eta abar, hala nola, Suediaren kasua), edota sortzaileentzako hainbat laguntza-funtsetan kudeaketako parte-hartzaile aktibo gisa (Norvegiako zenbait kasutan bezala), zein laguntza-deialdien esparruan gobernuak

eskaintako laguntzen eskatzaile gisa (esaterako, Danimarkaren kasuan), eta baita tradizio historikoko kutsu edo ildo gisa ere (Holandaren kasuan bezala).

Praktikan, erakunde-politiken jarrera kritiko gisako independentziaren aldeko diskurtsoaz haratago, kultura-politiken kudeaketak sektoreekiko elkarrizketa eta lankidetzara eskatzen du, eta sektore-heldutasuneko fase batean, erakundeen eginkizuna ez da aldarrikapenerako, lobby-rako eta interesak babesteko eginkizuna soilik, berezko politikak diseinatzeko eta kudeatzeko laguntzaile estrategiko izatekoa baizik (foroetan, erabaki-batzorde elkartuetan eta abarretan egotea). Holandako sortzaile-erakundeak ikuspegi horretan kokatzen dira laguntza publikoa aldarrikatzen dutenean, «bi norabidetako kostua dutela» (kultura-politikatik kultura-praktiketarantz informatzeko eta dinamizatzeko duten lanarekin lotutakoa, eta alderantzizko norabidekoarekin lotutakoa) «eta kostu hori beren kabuz ezin dutela ordaindu» argudiatuz.

Creative Imperative txostena, bestalde, elkarrekin politika publikoen dinamizaziorako eragile aktibo gisa duten eginkizunaren optimizaziorako ildo horretan kokatzen da; eginkizun hori gauzatzeko, beharrezkoa da nolabaiteko finantza-laguntza.

1.1.6. Laguntza pribatuko funtsak

Sektore pribatuekiko (Fundazioak) lankidetzaren bitartez sorkuntza-eskaintzan emandako laguntzek arte-dohaintzekin eta -erosketen zerga-tratamenduarekin lotutako azterketa-ildo bat osatzen dute hein handi batean.

Lehen adierazitako erosketa-funtsekin gertatzen den bezala, eskaintzarako laguntza-ildoen kapituluan horiek sailkatzea kontuan hartu beharko litzateke (kultura-produktuak erosteagatiko zerga-arintzeen kasuan, behinik behin), baina operatiboki, epigrafe honen barnean sartzeko erabakia hartu da, fundazioen jarduera-ildo garrantzitsuena kultura-sektoreari berari laguntza ematearekin lotuta legokeela kontuan hartuz, eta ez arte- eta kultura-produktuaren eskariaren aldeko kondizioak edo estimuluak sortzeko laguntza ematekoa. Fundazioetarako ekarpenengatiko edota arte-lanak erosteagatiko zerga-arintzeei dagokienez.

Oro har, herrialde guztiek jasotzen dute laguntza-legedi espezifikoren bat, baina soilik batzuetako legediek lortzen dute asmo handiko dimentsio eta planteamendurik kultura-politiken esparruan.

Frantzia, oinarriko legedi aplikagarria 1987koa da. Enpresek beren mozkinetatik ken ditzakete interes orokorreko fundazioei edo erakundeei egindako kultura-dohaintzak, gehienez beren fakturazioaren % 0,225-0,325. Eta bizirik dauden artistei arte garaikideko lanak erostearen kasuan (jendaurrean erakusteko), beren mozkinetatik ken dezakete erosketa-prezioa 20 urteko denbora-tartean. Korporazio-fundazioen sorreraren erregulazioa 1990ekoa da.

Frantziaren kasuan ez-bezala, Erresuma Batuen kasuan, kultura-sektoreari laguntzeko planteamenduen muinean kokatzen da historikoki enpresaren eta kulturaren arteko lankidetzaren politika, eta zerga-baliabideak dira horren lan-tresna tradizionalak.

Oinarri historiko horretan, Britainia Handiko gobernuak zerga-eraginkortasunaren hobekuntzarako nobedade eta planteamendu ugari sartu ditu azken urteotan, elkarre publikoak eta pribatuak susta daitezzen eta arlo pribatutik datozen laguntzen artean museoetan, artean eta ondasunean inbertitutako diru publikoarekin osa daitezkeenak areago ditzaten. Horren ildotik, enpresaren eta kulturaren arteko harremanaren eredu tradizionala oxigenatzeko jomuga izan du, banako inbertitzailearen laguntzarantz irekitzen saiatuz. Ongile-eredu berriek edo *venture philanthropy* deritzenek zerga-abantailetarako sistema berri ugari kontuan hartzera animatu dute Ogasuna: esate baterako, langileak hezkuntza- eta arte-erakundeetan prestatzeak horien soldata-kostuen baliokidea kentzea ahalbidetzen du. Era berean, lortutako laguntza pribatuen mailaren arabera laguntza-publikoak ere txertatu dira (sarrerarekin batera, bisitariek gutxienez % 10eko dohaintza egitea lortzen duten museoek laguntza jasotzen dute).

Eta sektorialki, pizgarri berri espezifikoetan ere lan egin da —esate baterako, zinema 2006an—; inbertsio-mailei eustea, horiek hobetzea eta etxeko ekoizpena hobetzea izan dira pizgarri horien jomugak.

Erakundeei dagokienez, hainbat erakunde ditugu zerga-politiken osagarri operatibo gisa, hala nola, Arteak eta Negozioak; Ingalaterrako Arteetarako Kontseiluak sortu zuen erakunde hori, eta elkarrekiko mozkinen dinamizazioa sustatzen du enpresen eta arteen elkarreraginean, hainbat programaren bitartez, esate baterako, «Bazkide Berriak» deritzona (bi alderdien arteko harreman egonkor eta iraunkorrak bilatzea). Eskozian ere lan-eskema hori dute, Eskoziako Arteak eta Negozioak deritzonarekin.

Eskandinaviako herrialdeei dagokienez, kultura-jardueraren finantzaketa pribaturako sistema garrantzitsu bat finkatu du Danimarkak azken urteotan (kultura-gastuaren % 8,7 2003an).

Onura Publikoko Fundazio Pribatuei buruzko Legeak egoera hori erraztu du. Fundazio pribatu ugari museoak eta musika- eta arte-jaialdiak babestu dituzte, lege horren erregulazio abantailatsuari eta zerga-kenkariei esker; kultura-arloan dohaintzak egiten dituzten konpainia pribatuei aplikatzen zaizkie zerga-kenkari horiek. Horrela, hainbat fundazio pribatuk, konpainia pribatuk eta banakok kultura-erakundeei, jardueri eta proiektu berriei laguntza ematen diete finantzarioki. Azken urteotan erakunde eta proiektu garrantzitsu asko sortu dira, fundazio pribatuen ereduari jarraituz. Horren adibide hoberena Operaren Etxe berria dugu; Kopenhagen ireki zen 2005ean; A.P. Moller fundazio pribatuak (itsas garraioko konpainia nagusietako bat munduan) hasi, finantzatu eta eraiki zuen lan hori. Horren osagarri gisa, 2004ko abenduko Kulturaren Alorreko Zergetako Salbuespenei buruzko Legeari esker, konpainia pribatuek arte-lanak erosi ahal izan dituzte, zerga-murriztapenekin.

Testuinguru horretan, fundazio kopurua nabarmen handiagotu da (2006an 14.000 zenbatu ziren), eta horren eraginez, Parlamentuak egoera aztertu eta ikertu zuen; izan ere, Parlamentuak 1995-2003ko denbora-tartean dohaintzek izandako bilakaera aztertzea iradoki zuen, dohaintza horiek jarduera-eremuen, erakundeen eta eskualdeen arabera banatuz, eta arteko eta kulturako jarduera klase eta mota desberdinak zehaztuz.

Holandan ere dohaintzetan eta babesetan zerga-salbuespenak izateko sistema bat sortu da, diru-sarrerara jakin batzuk jasotzeari dagokionez (esaterako, herentziak) irabazi-asmorik gabeko erakundeen tratamendua faboratuz. Jokoen eta apustuen jardueran zergak igoz konpentsatu dira diru-sarrerara publikoetako murriztapen mota horiek.

1.2. SORKUNTZA ESKARIAN LAGUNTZEA

Sorkuntza-eskaria —kulturala, zentzu zabalean— ekoizpeneko kultura-sarearen —hots, sorkuntza-eragilearen— funtzionamendurako ezinbesteko erregaia da.

Aztertutako herrialdeen portaera-jarraibideen arabera, ñabardurez eta berezitasunez haratago, sorkuntza-eskaria indartzeko, beharrezkoa da eskariaren demokratizazioa, eta azken batean, aberastasun kuantitatibo eta kualitatiboa dakar horrek.

Ildo horretako jarduerak, bestalde, elkarren artean lotutako ekintza-ildo ugariaren inguruan egitura daitezke:

- Kultura-kontsumoaren hobari ekonomikoa.
- Eskola ikaskuntzarako eta sentsibilizaziorako oinarri gisa: haurra eta gaztea lan-kolektibo estrategiko gisa.
- Arte amateurra sentsibilizazio- eta hurbilketa-bide gisa.
- Sorkuntza-jardueren goi-mailako hezkuntza.

Lan-ildo horien irudikapenak hainbat formula har ditzake, herrialde bakoitzeko erakundeen eta gizarte-jardunbideen ereduaren arabera. Horrela, Frantzia, esaterako, herrialde horren erakunde-sistemari «hezkuntza-egituran eta estatuaren logikan» oinarritua dagozkion dinamika egituratu eta ordenatu jakin batzuen arabekoak dira jarduerak. Britainia Handiko eredu, berriz, heterogeneoagoa da, eta askotariko «programa» autonomoak erabiltzen ditu sorkuntza gizarte-koheziarako eta enplegu-laguntzarako baliabide bilakatzeko, gizarte-politiken eta integrazioaren zerbitzura dagoena. Eskandinaviako herrialdeek, oster, Frantziakoaren antzekoa den planteamendua honako hauekin konbinatzen dute: batetik, dinamizazioan kokapen estrategikoa duten gizarte zibileko hainbat eragileren —kultura-elkarteen, edota sindikatuen— funtsezko eginkizunarekin, eta bestetik, sorkuntza-enpleguaren eta kultura-hezkuntza espezifikoaren arteko loturari eta bi horien kudeaketa harmoniatsuari eusteko kezka espezifikoarekin.

Kasu guztietan, toki-eginkizuna estrategikoa da politika horiek zehazteko eremu gisa, eta beraz, administrazio-maila horrek protagonismoa hartzen du horietako askotan.

1.2.1. Kultura-kontsumoaren hobari ekonomikoa

Kultura-kontsumoaren hobari ekonomikoa zuzenean (kontsumorako edota kontsumo prezioetarako diru-laguntza) eta zeharka (zeharkako zergen —BEZaren— zerga-tratamendua) uler daiteke.

Kultura-kontsumoaren zuzeneko hobariari dagokionez, herrialde gehienetan agertzen da, eta eraginkortasunari buruzko eztabaida eta polemika sortzen ditu.

Frantzia, adibidez, kultura-instalazioetako onarpen-tarifak murrizteko ahalegin handiak egiten dira, batik bat gazteentzako eta kolektibo behartsuetarako. Formulak askotarikoak dira: museo

nazonaletara dohainik sartzeko aukera gazteei, hilean behin igandean dohainik sartzea, astean behingo antzerki-jardunaldia prezio murriztuarekin, eta abar.

Azken neurri hori duela gutxi ebaluatu da, eta egiaztatu denez, ez ditu ikusle gehiago modu esanguratsuan erakarri. Kultura-txekearen ekimena, berriz, portaera hobea izaten ari dela dirudi, prezioak finkatzeko mekanismo gisa nabarmentzeaz gain, kulturarekiko harremana hobetzeko eta bezeroaren leialtasuna lortzeko mekanismo gisa ere nabarmendu baita.

Britainia Handiko gobernuak aparteko funtsak esleitzen dizkie museoetara eta galerietara, sarreraren kostua murrizteko edo ezabatzeke.

2007an, Suediak estatuaren museoetarako sarrera librea —2005ean abian jarria— kendu zuen. Balioetsi denez, doakotasun horri esker, museo horietara joaten ziren bisitarien ehunekoak % 85eko igoera izan zuen; datuen arabera, doako sarrera hori kendu ondoren, igoera horren herena finkatu egingo da.

2006an, aitortutako museo guztietara dohainik sartzeko aukera ezarri zitzaizen 18 urtetik beherako gazteei Danimarkan; garrantzitsuenetako batzuetan (Danimarkako Museo Nazionala, edota Arte Ederren Errege Museoa) doako sarrera ezarri zen guztientzat. Eztabaida handia sortu zuen neurri horrek. Praktikan, bisitari kopuruak nabarmen egin du gora horren eraginez.

Azkenik, Holandan, antzokietarako, zinemetarako eta museoetarako hobari ekonomikoak lortzeko ekimen eta formula ugari daude, honako hauek, besteak beste: gazteentzako kultura-pasaportea (26 urtetik beherakoentzat), hiri-pasaportea (pentsiodunentzat eta diru-sarrera txikiak dituztenentzat), museo-pasaportea, edota jardunaldi jakin batzuetako ekitaldi libreak. Berezi garrantzitsua den elementu bat eskoletan sartutako «kultura-txekeena» dugu; geroago kultura-txartel bilakatu zen, eta museoetara, antzokietara, zinemetara, kontzertuetara eta abarretara sartzea ahalbidetzen du. 2006an, ildo horren bitartez finantzatutako zenbatekoa 20 eurokoa zen pertsona bakoitzeko, eta udalen, enpresen eta abarren bestelako ekarpenekin karga daiteke txartela.

BEZari dagokionez: Frantzian, kultura-produktu ugari BEZaren tasa murriztua aplikatzen zaie (zehazki, % 5,5; orokorra % 19,6 da), eguneroko kontsumorako produktuen —elikagaien— tratamendu bera emanez. Egoera horretan daude liburuak, euskarri digitaleko edo ikus-entzunezko euskarriko lanak, edota zinemarako eta arte eszenikoetarako (antzerkia,

kontzertuak, zirkua, barietateak eta abar) sarrerak. Horretaz gain, tasa hori txikiagoa da (% 2,1) prentsarako eta sortu berriak diren edo formatu berria duten lan eszenikoen lehen 140 emanaldietarako sarreretarako.

Britainia Handian liburuak BEZetik salbuetsita daude, eta «borondatez» —irabazi-asmorik gabe— administratutako erakundeak ere BEZetik salbuetsita daude sarrera-tarifetan (museoak, antzokiak, ondarea eta beste hainbat kultura-erakunde).

Eskandinaviako herrialdeetan egoera desberdinak daude. Danimarkan, liburuari eta kultura-zerbitzuei aplikatutako BEZa % 25 da, hots, orokorra. Norvegian, ostera, BEZ orokorra lehen % 25 bazen ere, arte eszenikoak, eta oro har, kultura-zerbitzuak —zinemak, antzokiak, zirkua, galeriak, museoak, eta abar— salbuetsita daude, baita lotutako *merchandising*-a saltzea ere (katalogoak, postalak, oroigarriak, eta abar). Horretaz gain, BEZetik salbuetsita geratzea arte-emanaldietarako beharrezkoak diren eta horietan txertatuta dauden zerbitzuetara zabaltzea onartu da. Liburua salbuetsita dago. Azkenik, Suedian, 2001era arte, kultura-produktuei eta -zerbitzuei BEZ orokorra aplikatzen zitzairen, hots, % 25. Eta kritika eta eztabaida ugari izan ondoren, libururako % 6ra murriztu zen. Tasa orokor bakar batera aldatzea gomendatzen zuten neurriaren ondoren egindako azterlanek (% 25 baino apur bat txikiagoa, % 21 inguru).

Holandan, arte eszenikoetarako sarrerei eta orokorrean kultura-zerbitzuei aplikatzeko tasa maila txikieneraino murriztu zen 1993an. Egileei, gidoilariari, konpositoreei eta abarri tipo altuena aplikatzen zaie.

1.2.2. Eskolan/eskolatik gauzatutako ekintza: haurra eta gaztea lan-kolektibo estrategiko gisa

Sorkuntza-sentsibilizaziorako eta haren eskariaren estimuluaren oinarri gisa eskoletan arte- eta kultura-hezkuntza ematea zeharkako beste elementuetako bat dugu. Haren hezurmamitzea eskola-jardueraren beraren bitartez zehazten da, eta ikasleak kultura- eta sorkuntza-sarera hurbiltzeko eta harekin lotzeko egiten da kultura-bitartekotzarako lana.

Frantziaren kasuan, arte-hezkuntza derrigorrean sartu behar da 6-15 urtekoen ikasketa-plan nazionaletan; adin horretatik aurrera (bigarren hezkuntzaren bigarren zikloan) irakasgai horiek hautazkoak dira. 1983az geroztik hona, Kultura eta Komunikazio Ministerioa Hezkuntza Ministerioarekin lankidetzan aritzen da arte-hezkuntzaren esparrua areagotzeko, diziplina

guztiak sartzeko, irakaskuntza- eta kultura-zentroen arteko lankidetzaren areagotzeko eta kultura-profesionalek ekintza-planetan partaidetza handiagoa izan dezaten sustatzeko.

Eskoletako Arteen eta Kulturaren Bost Urtez Behingo Planak kultura- eta arte-egiturak jartzen ditu (6.000 kultura-establezimendutik gora: museoak, antzokiak, zinemak, eta abar), baterako irakaskuntza-ekimen berritzaileak gauzatzeko behar diren baliabideekin. Eta Kultura eta Komunikazio Ministerioak horien esparrurako egokiak diren programak administratzen ditu (esate baterako, ondare-eskolak, bigarren hezkuntzako ikasleak zinema-aretoetara joatea). Lurralde-garapenerako eta lurralde-ekintzarako Ordezkaritzak, bestalde, hezkuntza-esparruan Ministerioen Zuzendaritzek gauzatutako ekimenak koordinatzen ditu neurriak kudeatuz (arte-jarduerak, tailerrak, edota kultura-eskolak) eta Hezkuntza Ministerioarekiko etengabeko elkarrizketari eutsiz.

Erresuma Batuan, Kultura Ministerioak honako lehentasun hauek ditu: arteen esperientziarako sarbidea eta talentu artistikoaren garapena ahalbidetzea, talentu handieneko gazteek hezkuntza edo laguntza hobereana izan dezaten faboratzea, eta artearen alorrean langile gaituak izan daitezen sustatzea. Ildo horretatik, Kultura Ministerioak Hezkuntzaren eta Lanbideen Zuzendaritzarekin lan egiten du lehentasun horiek lortzeko.

Hala eta guztiz ere, Britainia Handiko ereduaren ezaugarriek ekintza-esparru desberdina eskaintzen dute, sorkuntza-prestakuntza sustatzeko eta hura sorkuntza-sarearekin lotzeko jomuga duten hainbat programa autonomoren bitartez bideratzen baitute ahaleginen zati handi bat. Gainera, gizarte-kohesioaren eta toki behartsuetako enpleguaren zerbitzura dagoen hezkuntza-optimizazioaren ikuspegitik planteatzen dira horiek askotan. Horri dagokionez, honako Programa hauek nabarmendu behar dira:

- *Bazkide Sortzaileak*, eskolen eta kultura- eta sorkuntza-sarearen arteko loturak sortzeko jomuga duena. Artistekin eta sorkuntza-profesionalekin lan egiteko aukera eskaintzen die gazteei, ikaskuntza, sorkuntza-gaitasunak eta ahalmen kritikoa garatzeko, eta irakasleentzako eta sorkuntza-profesionalentzako prestakuntzarekin osatzen da. Herrialdeko 36 toki behartsutan ardatzen da.
- *Arts mark*: arte-esparruetan (arte, diseinua, musika, dantza eta drama) interesa erakutsi duten ikastetxeen jardunbide egokiak aitortzen, sustatzen eta hedatzen dituen sari nazionala; eskolak, artearen alorreko erakundeak eta sortzaileak batera lan egitera animatzen dira sari horren bitartez.

- *Sorkuntza Loturetarako Ofizialak* Toki Agintaritzetako hezkuntza-departamentuetan kokatuta daude, arteen eta hezkuntza formalaren eta informalaren artean harremanak ezartzeko eta horrela, artearen alorreko ikaskuntza-aukerak handitzeko. 2002an, «*Eskoletako Kultura Koordinatzaileak*» izeneko ekimen berri batekin osatu zen programa hori; adierazitako ekimena Kultura Estrategia Nazionalaren pean ezarri zen.
- *Estrategia Komisioek* irakasleak eta museoetako, artxiboetako eta abarretako langileak biltzen dituzte, esperientziak eta jakintzak parteka ditzaten.

Artearen eta hezkuntzaren alorreko programa horiekin batera, beste hainbat ekimen eta programa agertzen dira, espezifikoki haurrei eta gazteei zuzenduak. Honako hauek, besteak beste:

- *Arteen Saria*: 11-25 urteko gazteen sorkuntza-aurrerabidea aitortzen du, eta ez soilik horien gaitasuna; horretarako, horien komunitateetako baliabideen optimizazioa, jakintza partekatzea eta beste artistekiko lankidetzak pizten ditu. Artearen alorreko prestakuntza espezifikorako eta/edo lanerako aukerak eskaintzen ditu.
- *Musika Gaztea*: ekonomia- eta gizarte-maila baxuko tokietan bizi diren 18 urtetik beherako gazteen musika-sorkuntzan laguntzen du, Loteria Nazionalako funtsen bitartez.
- *First Ligth*, Erresuma Batuko Zinemaren Kontseiluaren programa, Loteria Nazionalak finantzatua; 7-18 urteko haurrei eta gazteei film laburrak sortzeko aukerak ematen dizkiena.

Eskandinaviako herrialdeek ere hezkuntza lantzen dute, kulturaren eta artearen alorreko, eta bereziki, sorkuntzaren alorreko jardueran herritarren partaidetza hobetzeko bide gisa. Suedian, esate baterako, hezkuntza-curriculuma 1994an hasi zen indarrean, eta musika- eta arte-hezkuntzak ingelesak bezain garrantzi handia du. Eta eskolekin modu aktiboan lankidetzan aritzen dira kultura-erakunde guztiak. «Artearen alorreko eskualde-aholkulariak» deritzon programak 10 urteko indarraldia du eta batez ere dantzan eta ikusizko arteetan aritzen da. Finlandiako antzeko eredu batean inspiratua, eskualde bakoitzak finantzatutako hiru urteko iraupeneko kontratuetan eta Suediako Arteen Kontseiluaren bitartez gobernuak emandako diru-laguntza batean oinarrituta dago. «Eskualde-aholkulariek» beren arte-sektoreak sustatzen dituzte, eta eskolen, artisten eta erakundeen arteko kontratuak hasteko ardura dute, bisiten eta epe luzerako proiektuen aldeko konpromisoa hartzeko.

Norvegia, azken hamarkadan maila guztietan berregituratu da arte-hezkuntza —lehen hezkuntzatik goi-mailakoraino— estetika- eta sorkuntza-diziplinetan protagonismo eta enfasi handiagoa izan dezan lortzeko. Garapen-nahi horren jatorria DKS Programan dago (*Den Kulturelle Skolesekken*); Programa hori 2001ean finkatu zen neurri nazional gisa, apustuen konpainia publikoaren funtsekin finantzatzen da, eta honako xede hauek ditu: batetik, lehen hezkuntzako eta bigarren hezkuntzako ikasleei kultura eta arte profesionalari buruzko programa bat eskaintzea, eta bestetik, kultura- eta arte-adierazpen guztietarako sarbidea eta familiarizazioa lortzea, eta azkenik, kultura- eta arte-adierazpena ikastetxeetako helburuen artean oro har sartzen laguntzea.

Holandan, 1945ean hasi ziren kultura- eta arte-dimentsioa hezkuntzan txertatzen; izan ere, bigarren hezkuntzako ikasleak urte horretan hasi ziren museoetara, antzokietara, kontzertuetara eta abarretara joaten. Usadio hori 1998an indartu eta eguneratu zen; urte horretan, Arte eta Kultura Hezkuntza derrigorrezko irakasgai gisa sartu zen bigarren hezkuntzan; hainbat irakasgaitako irakasleek —ez soilik musika eta marrazketakoak, historia, hizkuntza eta matematikakoak ere bai— lehenetsunez eman behar zituzten eskola horiek, eta horri esker, adierazitako planteamendua aberastu egin zen. Planteamendu horien osagarri gisa, honako hauek ere baditugu: batetik, txartel-txekeetako kultura-sistema bat —lehen aipatu duguna—, arte- edo kultura-ekitaldietarako edo instalazioetarako sarbidea finantzatzeko, eta bestetik, eskolen eta kultura-erakundeen arteko lankidetzako planteamenduak diruz laguntzea, ikasleak aldian behin kultura-jardueretara hurbil daitezten eta erakunde horiek ikasleen eta irakasleen iritziak eta motibazioak hobeki ezagutu ditzaten.

1.2.3. Arte amateurra eta arte prestakuntza ludikoa

Frantzian, kultura- eta sorkuntza-jarduerak modu amateurrean gauzatzeak —oso zabaldua—, eta horretaz gain, arte-hezkuntza aisialdian gauzatzeak —etengabeko prestakuntza— oso ekintza-esparru garrantzitsua osatzen dute. Lan horrek gero eta gehiago eskatzen ditu toki-baliabideak eta -ahaleginak; izan ere, gaur egun, antolatutako ikastaroek eta sortutako erraztasunek —entseatzeko biltzeko tokiek, eta abarrek— ez diote egungo eskariari erantzuten.

Britainia Handian, gizarteratze-politiken esparruan bideratu ohi dira ekimen horiek kasu askotan. Askotan, hainbat programatan zehazten dira, esate baterako, Ingalaterrako Arteen Kontseiluaren «Komunitate Sutsuak» deritzon; aisiarako, kultura-prestakuntzarako eta sormena estimulatzeko politiken bitartez, gizarteratze-elementuak sustatzeko eta arteek komunitatearen

sustapenean eta horren aldeko konpromisoan eginkizun garrantzitsua izan dezaketela frogatzeko helburua du adierazitako programa horrek.

Ikuspegi horretatik, *Voluntary Arts Network (VAN)* deritzona Zaleentzako Arteen Garapenerako Britainia Handiko Agentzia da, eta politika-diseinatzaileekin, finantzatzaileekin eta politikariek lan egiten du artean parte hartzen dutenen ingurunea hobetzeko: artearen esparruan parte hartzen duten pertsonen informazioa, prestakuntza eta lan-aukerak ematen zaizkie. Tokiko artista amateurrez osatutako beste hainbat talde eta artezale hartzen dituzten 300 erakunde baino gehiago hartzen dira horren barnean, eta azken batean zera aldarrikatzen da, gobernu-politikak gizarte-bazterkeriako egoeran dauden taldeei eta banakoei eramateko aukera errentagarria dela arte amateurra hain zuzen ere. Ildo horretan koka daitezke hainbat ekimen, hala nola, Ipar Irlandako Ikaskuntza Estrategia; Ipar Irlandako Kultura Kapitalaren alde diharduten hainbat erakunderen lana harmonizatzen du ekimen horrek, esparru horietako sormena, berrikuntza eta etengabeko prestakuntza sustatuz.

Suedian, estatuak kulturara bideratutako gastu-partida handiena «helduentzako doako hezkuntzari» eusteko erabiltzen da. Toki-agentziak garrantzitsuak dira sorkuntza-tailerrak, antzokietarako bisitak, arte-mintzaldiak eta abar sustatzeko, eta hainbat gizarte-mailatako parte-hartzaile heldu ugari erakartzeko gaitasuna dute.

Orobat, eta herrialde horren berezitasun gisa, Suediako Arteetarako Kontseiluak funts bereziak bideratzen ditu «kultura lan-munduan» deritzonera, langileen sindikatuen bitartez hainbat lantokitan kultura-jarduerak estimulatuz. Elementu horiek sormena eta jakintza bateratzen dituzte. Azken urteotan, helburu hori areagotu egin da, kulturak lan-munduan duen inpaktua ere kontuan hartuz, osasunari eusteko modu gisa.

Eta Suedian herritarren elkarte-antolamenduak kultura-praktikaren eta -eskariaren dinamizazioan duen eginkizun estrategikoaren adierazgarri gisa, kolektibo berrietan kultura sartzeko modu berriak bilatzeko jomuga duten hainbat auzo-proiektutan parte hartzen dute kultura-erakunde ugari. Ikusizko Arteetako beste hainbat taldek ordezkariak dituzte kalean, arte profesionala (normalean, arte grafikoa) eta literatura prezio murriztuetan erostea sustatzeko, kalitatea guztien eskueran egon dadin lortzeko. Suediako Arteko Klub Federazioak oso eginkizun garrantzitsua du Suediako kultura-bizitzan, artearen eta artisautzaren salerosketa bolumen handia mobilizatzeaz gain, erakusketak eta hezkuntza-jarduerak antolatzen baititu. 2.500 arte-klub inguru daude Federazioan elkartuta (ikusizko arteak), eta Federazioak 700.000 bat bazkide ditu.

Danimarka kultura amateurreko eta boluntario-lan elkartuko tradizio handia duen herrialdea dugu, eta horrelako jarduerak eta prestakuntza ludiko eta artistikoa toki-eremuarekin (ekipamenduak eta jarduerak kudeatzen ditu toki-eremuak) lotzen dira batez ere. Horren ildotik, Kultura Etxeek tradizio luzea eta garrantzi handia dute Danimarkako kultura-munduan, eta berrabiarazte-fasean daude gaur egun, parte-hartzaileak batez ere ikusleak —pasiboak— izatera aldatu ziren denboraldi baten ondoren; horrela, bisita eta jarduera kopuru handiak dituzte berriz ere.

Azkenik, jarduera amateurrak, horrelako jardueri eta prestakuntza elkartuari eusteko toki-eginkizunak, kultura-etxeek eta abarrek hartutako garrantzia irudikatzen da Holandan. Halaber, herritarren kultura-jakintza hobetzeko eta haren praktikak sustatzeko edo indartzeko jomuga duten Estatuko Ekintza Planen bitartez indartu da toki-eginkizun hori; estatuak finantzatzen ditu programa horiek, baina udalerriek kudeatzen dituzte modu autonomoan; izan ere, programa horiek diseinatzeko, zehazteko eta diru-laguntzak emateko (helburu horiek errespetatuz) autonomia dute udalerriek.

1.2.4. Goi-mailako arte-prestakuntza

Kulturaren goi-mailako hezkuntzari dagokionez hezkuntza-sistema desberdinek dituzten dinamikak, herrialde bakoitzaren berezitasunak kontuan hartuz hezkuntza hori Europan sartzeak edota irakaskuntza espezializatuaren espezifikotasunek berezko hurbilketa eskatzen dute, eta horrek txosten honen aukerak eta planteamenduak gainditzen ditu. Hala eta guztiz ere, prestakuntza-problematikez haratago, irakaskuntza-establezimenduetatik ateratako pertsonen lanbide-aukerak prestakuntza bide horiek kontuan hartuz egokitzearen aldeko sentsibilitate berezia ezarri dute Eskandinaviako herrialdeek. Horrela, arte-ekoizpenaren ekonomia- eta lanbide-ikuspegia gaur egun gai horri heltzeko erreferentzia-elementu gisa nabarmentzen duen ikuspuntua —sorkuntzarako diru-laguntzen eta beken ildoak deskribatzean adierazi duguna— egiaztatzen da.

Horrela, Norvegiar arte-hezkuntzako irakaskuntza-establezimenduetatik ateratako pertsonen kopurua eta arte-hezkuntza bera areagotu direla egiaztatzen da; egoera hori kezagarria da profesionalen elkarreentzat, kontuan hartuz artearen alorreko lanaren garapenerako oinarri ekonomikoek ez dutela hazkunde proportzionala izan. Era berean, prestakuntza jakin batzuetako ikasleen plazak murrizteari ekin zaio Danimarkan, irakaskuntza-establezimenduetatik ateratako pertsona kopuruaren eta lanbide-aukeren arteko gehiegizko desfasea saihesteko.

1.3. SORKUNTZA JARDUERAREN GIZARTE ETA LAN BALDINTZETAN LAGUNTZEA

Sorkuntza- eta arte-jardueraren berezitasunak —lanaren ezohiko izaera, diru-sarreraren irregulartasuna, eta batzuetan, horien aurrikusgarritasunik eza, ikerketaren eta garapenaren faseetako ordainketarik eza, mugikortasun-maila handiak, eta abar— ez «datoz bat» lan-alorreko, zerga-alorreko edo gizarte-segurantzaren alorreko esparru erregulatzailerokorrek. Desfase horren eraginez, kolektibo horrek, askotan, segurtasunik eta babesik gabeko ingurune batean gauzatzen du bere jarduera, gainerako sektoreekin alderatuz.

Egoera horrek eztabaida sortzen du; horrela, antzina sortuak diren eta lanbide horietan zabaldu samartuak dauden hainbat eskaera eta planteamendu jasotzen dira (UNESCOren Gomendioa-1980); gaurkotasun berezia hartu dute eskaera eta planteamendu horiek arte-jarduerari buruz Europako Parlamentuak emandako ebazpen baten testuinguruan; ebazpen horretan, arte-jardueraren baldintzak hobetzeko ildoan aurrera egiteko presatzen dira Europako Batzordea eta Estatu Kideak —Artistaren Estatutua— jarduera horretan laguntzeko oinarritzko testuinguru gisa¹.

Jarduera horren baldintzak hobetzeko edo gainerakoekin parekatzeko prozesua —sorkuntzaren esparru guztietan kultura-ingurune dinamikoa sortzea ahalbidetuko duena— funtsezko hiru norabidetan hasten da:

- Lan-legedian, hots, kontratazioari, ordainketari, lan-baldintzei, lanbide-prestakuntza izateko eskubideari, sindikatu-eskubideei, negoziazio kolektiboari eta abarri buruzko araudian.
- Gizarte-babesean, hots, gizarte-segurantzari buruzko arauetan (gaixotasun-aseguruak, amatasuna, baliaezintasuna, lan-istripuetatik babestea, langabezia-aseguruak eta pentsio-planak, eta abar).
- Artisten lan-egoeran zuzeneko edo zeharkako eragina duen Fiskaltasunean.

Artisten gizarte- eta lan-egoera horiek herrialde bakoitzean aplikatutako legediaren eta araudiaren arabekoak dira, eta beraz, egoerak oso desberdinak izan daitezke. Hala eta guztiz ere, artistek eta sortzaileek aurre egin behar dieten zailtasun nagusiak oso antzekoak dira funtsean.

Egindako nazioarteko begiradari dagokionez, ondorengo lan- eta zerga-irakurketa zirriborra daiteke.

¹ Ikus Europako Parlamenturaren Ebazpen Proposamena, artisten estatutu sozialari buruzkoa (2006/2249(INI)). Ikus *La situation des professionnels de la création artistique en Europe* azterlana. Europako Parlamentua, Batasunaren Barne Politikaren Zuzendaritza Nagusia.

1.3.1. Lan-arloko legedia eta gizarte-babesa

Nahiz eta arte-jardueraren berezkotasunari buruzko adostasuna dagoen eta horri buruzko elkarrizketak zabaldua badaude ere, herrialde guztiek orokorrean ez dute kolektibo horietara egokitutako erregimen espezifikorik jasotzen; horrela, erregimen orokorrak dira aplikatzekoak.

Frantzia dugu antzinatek sistema espezifikoak hartu dituen herrialde bakarra, eta horregatik, erreferentziatzko eta aztertu beharreko kasu bat da; bestalde, sistema espezifiko horiek etengabeko eztabaida eta kritika sortu dute.

60ko hamarkadaren amaieraz geroztik hona, artistak, antzezleak eta musika-joleak aldizkakotasun-erregimenean txertatuak geratu dira, eta geroago, ikuskizun eszenikoetako teknikariak ere erregimen horretan txertatu ziren¹.

Erregimen horrek langabezia-asegurua bermatzen die profesionali, arte-ekoizpenaren bizitasunaren mesederako. Langabeziagatiko 8 hilabeteko kobrantza izateko beharrezkoa da 10 hilabeteko denbora-tartean gutxienez 507 orduz lan egin izana; ASSEDICek —industria eta merkataritzako enplegurako elkarteek— kudeatzen du kobrantza hori; 2009ko urtarrilaren 1ean ANPErekin —enpleguaren agentzia nazionalarekin— bateratu da ASSEDIC, erakunde berri bat sortuz, *Pôle Emploi* deritzona, hain zuzen ere.

Azken urteotan, aldizkakotasun-sistema horrek eztabaidak sortu ditu, funtzionamendu-gabezia nabarmenak dituelako eta aldizkako langileak kexatzen direlako —justizia-azitegietara eraman dira eztabaida horiek— nahiz beste hainbat kolektiborekin alderatuz dituen abantailen gaineko kritikak direla-eta.

1977az geroztik hona, artistentzako eta egileentzako (idazleak, konpositoreak, koreografoak, argazkilariak, artista plastikoak, software-sortzaileak, diseinatzaile grafikoak, eta abar) beste sistema espezifiko batek ere badihardu Gizarte Segurantzaren barruan. Sistema horrek ezartzen duenez, artista eta egile autonomoek, lan-jardueraren bigarren urtearen amaieran, soldatapeko langileen onura eta baldintza berberak izateko eskubidea dute. Kasu berezi hori alde batera utziz, Britainia Handian ez dago neurri espezifikorik lan-legediaren eta gizarte-segurantzaren esparruan; hala ere, horri dagokionez EBean dagoen eztabaidaren testuinguruan, gai horrek hainbat azterlan espezifiko eragin ditu, Ingalaterrako Arteen Kontseiluak eginak.

¹ «Aldizkako» langileak zinemako, telebistako edota arte eszenikoetako enpresetarako lan egiten duten artistak dira, laneko eta langabeziako denboraldiak txandakatuz. Horrelako enpresak -ekoizpen zehatzak- normalean denboran mugatuta daudela kontuan hartuz, txandaka laneko eta langabeziako denboraldietan egotea eragiten die egoera horrek artista eta teknikari ugari (besteak beste), enpresa horiek zenbait langile modu egonkorrean kontratatuta izan ditzaketela bazter utzi gabe. Frantzian, aldizkakotasun-erregimeneko soldatapeko gisa egiten dute lan profil horiek, Britainia Handian, Alemanian edo beste hainbat herrialdetan ez-bezala, beren jarduera modu liberalean gauzatzen baitute horietan.

Danimarkan, Suedian eta Norvegian ere ez dago legedi espezifikorik; Danimarkaren kasuan, horri buruzko hainbat iradokizun egin dira Kultura Ministerioak irekitako eztabaidaren (Danimarkako Kultura Politikak) esparruan, baina oraingoz, ez da horietako ezein zehaztu. Suedian ere eztabaida hori oso bizia da, eta sektoreak bere gizarte-eragileen bitartez egindako presioa handia da, baina Enplegu Zerbitzuen Bulegoaren ekimenak —unean unekoak edo esperimentalak— alde batera utzita, ekimen sakonik ez da hitzartu. Azkenik, Norvegian, lanaren eta gizarte segurantzaren alorrean modu unibertsalean ez bada ere, sortutako laguntzen (lehen aipatutakoak) legedia —bekak eta diru-laguntzak— problematika horretara hurbiltzen da partzialki, hainbat urtetako laguntzak eta/edo diru-sarreraren bermeak-kolektibo espezifiko gutxi batzuei zuzenduak-planteatuz.

Azkenik, Holandan, lanaren eta gizarte-segurantzaren alorreko legedia orokorra da, hots, gainerako sektoreei aplikatu beharrekoa; hala ere, artista autonomoentzat berezitasunen bat sortu du. Horiek, oinarritzko diru-sarrera badute ere (gizarte-prestazioaren % 70), lan egiteko eta beren lanak saltzeko aukera dute, horren % 125era iritsi arte.

1.3.2. Zerga-tratamendua

Zergen ikuspegitik, egoerak desberdinak izan daitezke, eta herrialde bakoitzean ezarritako ereduaren araberakoak hein handi batean. Alabaina, sektoreari laguntzeko funtsezko planteamenduak, normalean, hiru bidetatik zuzentzen dira:

- Fundazioei ekarpenak egiteagatiko eta/edo arte-lanak erosteagatiko zerga-arintzeak, sorkuntzaren eta enpresaren munduari laguntzeko formula gisa (1.1. Sorkuntza-eskaintzan laguntzea epigrafean aurkeztua).
- Tipo bereziak edo BEZetik salbuetsita geratzea, kultura-eskaria edo -kontsumoa estimulatzeke formula gisa (1.2. Sorkuntza-eskarian laguntzea epigrafean aurkeztua).
- Sortzaileen errentaren gaineko ezarpenerako tratamendu espezifikoak, eskariari modu zuzenagoan laguntza emateko formula gisa (artistaren gizarte- eta lan-baldintzetan eragina duena, eta ondoren aurkeztuko duguna).

Sortzaileen errentaren gaineko ezarpenerako tratamendu espezifikoari dagokionez. Sortzaileari aplikatzekoa den fiskaltasunak esparru orokorretara igortzen gaitu oro har. Zehazki, zenbait herrialdek, hala nola, Danimarkak eta Britainia Handiak, ekitaldi bateko diru-sarrerak hainbat

urtetako zerga-ezarpenean banatzea ahalbidetzen dute —progresibotasunaren inpaktua arintzeko—, betiere mozkina unean unekoa izanik ere aurretiaz sorkuntza-laneko prozesu bat izan dela argi eta garbi frogatzen bada, diru-sarrerarik gabeko sorkuntza-lana izanik.

Beken eta laguntzen zerga-tratamendua ere oso desberdina izan daiteke. Britainia Handian fiskalki diru-sarrera gisa zenbatzen badira ere, gainerako herrialde gehienetan —Suedian— ez dute hori egiten; egoera horrek, hainbat urtetako laguntzekin batera, inpaktu negatiboak sortzen ditu geroagoko erretiro-pentsioen balioespenean.

1.3.3. Esperientzia zehatz bat: Québecen kasua

Deskribatutako egoera-mapaz eta hurbileneko ingurunean ditugun eztabaidez eta proposamenez (heltze-maila desberdinetakoak) haratago, Québecen kasua erreferentzia interesgarria dugu, 2004az geroztik hona sistematikoki baitihardute Ekintza Plan zehatz batean.

Adierazitako Plana, *Pour mieux vivre de l'art* deritzona (Artea ogibide hobea izan dadin) hamabi neurritz osatuta dago, honako hauekin lotuak: lan-segurtasunarekin eta -osasanarekin, artisten elkarteek emandako erretiro-planen hobariarekin, laguntza- eta enplegu-prestazioekin (Québeceko gizarte-segurantzako erregimena), lanbide-karreraren trantsizio edo ibilbidearekin, eta diru-laguntzen eta fiskaltasunaren bitartez ordainsariak hobetzearekin.

Plan horrek arte-diziplina guztietako artistei eragiten die, lan konplexua dakar, eta bakoitzari dagokion eskumenetan inplikatzaren diren hainbat erakunde- eta gizarte-eragileren esku-hartzeak eta baliabideak biltzen ditu, zerbitzuak artisten berezitasunei egokitzeko. Horrela, Planaren *partenaire* nagusiak honako hauek dira: Enplegu eta Gizarte Segurantza Ministerioa; Enplegua-Quebec; Lan Merkatuko Gizarte Eragileen Komisioa; Québeceko Errenten Erakunde Publikoa (*Régie des rentes de Québec*), Lan Ministerioa; Laneko Segurtasun eta Osasunaren Komisioa; Finantza Ministerioa, eta abar.

Gaur egun, dagoeneko aurrerabide handia izan duen ibilbide bati aurre egiten dio Planak; 2004-2008ko lorpenen balioespenari heltzen dio ibilbide horrek.

II. ZATIA **BEGIRADA EAETIK:** **LANERAKO JOKALEKU POSIBLEETARAKO PROPOSAMENA**

2. **EPE MOTZ, ERTAIN, ETA LUZERAKO JOKALEKU POSIBLEAK**

2.1. SORKUNTZA ESKAINTZA:	
EZTABAIDARAKO ELEMENTUAK	32
2.1.1. Erosketa funtsak	32
2.1.2. Konpentsazio funtsak	32
2.1.3. Diru-laguntzak eta beka	33
2.1.4. Sariak	34
2.1.5. Elkarteak	34
2.1.6. Laguntza pribatuko funtsak	35
2.2. SORKUNTZA ESKARIA: EZTABAIDARAKO ELEMENTUAK	36
2.2.1. Kultura-kontsumoaren hobari ekonomikoa	36
2.2.2. Eskolan/eskolatik gauzatutako ekintza: haurra eta gaztea lan-kolektibo estrategiko gisa.	36
2.2.3. Arte amateur eta arte prestakuntza ludikoa	37
2.2.4. Goi-mailako arte-prestakuntza	38
2.3. GIZARTE ETA LAN BALDINTZAK:	
EZTABAIDARAKO ELEMENTUAK	39

Bigarren zatiak —Begirada EAEtik deritzonak— informazio horiei balioa emateko jomuga du, gure errealitatera proiektatutako ikaskuntzei dagokienez.

Azken batean, nazioarteko esku-hartzeen egitura —lehen aurkeztua— jasotzea eta gure hurbileneko ingurunera ekartzea da zati honen xedea, egitura horren alderdi desberdinetan EAEko lan-jokaleku posibleak adieraziz. Horrela, nazioarteko ikuspegitik aztertutako esku-hartzeen ildo bakoitzerako EAEn izan dezakegun epe motz, ertain, eta luzerako lan jokaleku posiblea iradokiko dugu, egun sorkuntzarako dugun laguntza-esparrua berritzeko eta perfektionatzeko erakunde-hausnarketako prozesua martxan jartzeko abiapuntu gisa. Jokaleku hori:

- Errazteko helburu soila duen lan-tresna da: hau da, politika horien sektore-arduradunekiko eta/edo eragileekiko hausnarketa egituratua eragiteko tresna edo gida, materiala lantzeko, elementuak alde batera baztertuz, egokituz eta/edo sartuz.
- Tresna partziala da: EAEko erakunde-politiken informaziorako eta balioespenerako oinarri mugatu batean sortua. Nabarmena da testuinguru bikain batean gomendagarria litzatekeela gaur egun EAEn horri buruz dauden politiken balioespenak eta ebaluazioak edukitzea. Baina praktikotasunari lehentasuna emanez, proposatutako jokalekuen gainean irekiko diren hausnarketak eta eztabaidak egungo politikak balioesteko eta ebaluatzeko elementuak sartzeko aukera ematen dutela iritzi da.

Ezaugarri horiek kontuan hartuz, proposatutako lan jokalekuek irudikatzen duten abiapuntuak hausnarketa eta eztabaida posibleerako hiru ildo handi irekitzen ditu:

a) Laguntzen eta politiken egitura orokorra eta ikuspegia.

- Bestalde, sorkuntzari eragiten dioten hiru alderdien —sorkuntzaren eskaintzaren, eskariaren eta gizarte eta lan baldintzen— sinergia-estaldurarako gaur egun laguntzek eta politikek duten egituraren egokitasunaren arabera kokatu dugu hausnarketa.
- Azken batean, lehentasuneko, bideragarritasuneko eta aukerako irizpideak konbinatzean datza, lehen adierazitako hiru ekintza-alderdietako esku-hartzeez osatutako koktel orekatu eta sinergikoa identifikatzeko, esperotako ondorioak maximizatuko dituen koktela, hain zuzen ere.

b) Laguntzen erakunde-arkitektura.

- Sistemak jokatzen duten erakunde-eragileek dituzten eginkizunen eta dinamizatzen duten laguntza-ildoen koordinazioaren, koherentziaren eta osagarritasunaren arabera kokatu dugu hausnarketa.

- Azken batean, kolaborazioa oinarri hartuz hausnartzean datza, ikuspegi integral eta integratuarekin, eta ekintzaren ikuspegia gaindituz, elkarreraginaren ikuspegia indartzeko.

c) Laguntzen eraginkortasuna.

Hausnarketa kudeaketaren eraginkortasuna oinarri hartuta kokatuz, hots, honako hauek:

- Laguntzen zuzkiduraren proportzionaltasuna, hots, helburuen eta lan-kolektiboen arabera baliabideak kuantitatiboki egokitzea.
- Hedapenaren eraginkortasuna, onuradun-profilak, kontzentrazioak eta sakabanatzeak, eta emandako laguntzen ekonomia-mailak kudeatuz, esperotako inpaktuak optimizatzeko.
- Erakundeen kudeaketa eraginkortasuna, egutegiak, laguntzen kudeaketa eraginkorraren administrazio-prozesuak eta abar optimizatuz, azkenean sortzaileak gogobetetzeko.

2. EPE MOTZ, ERTAIN, ETA LUZERAKO JOKALEKU POSIBLEAK

Nazioarteko Begiradan jasotako lan-ildo bakoitzerako bi kapitulu handi identifikatzea da lan-eskemaren abiapuntua:

- Testuinguruan jartzea eta helburuak.
- Esku hartzeko aldi baterako orientazioak: Epe laburra, ertaina eta luzea, honako hauen denbora-irakurketa kontuan hartuz: berehala; 2-3 urte geroago; 3-5 urte geroago.

2.1. SORKUNTZA ESKAINTZA: EZTABAIDARAKO ELEMENTUAK

2.1.1. Erosketa Funtsak

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

- Sorkuntza estimulatzen —beste erabilera batzuekin alderatuz (ondarea kontserbatzea, ondareari balioa ematea, ondarea hedatzea, eta abar)¹—, arte-lan garaikideari balioa emateko eta haren ikuspena optimizatzen xedea duen erosketarako egun dauden funts publikoen esparruaren egokitasunari eta egokitzeari buruzko hausnarketa.
- Hala badagokio, dauden tresnak egokitzea.

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

- Epe motza: ikuspena. Lan horietara bideratutako zenbatekoa kuantifikatzea eta jatorrien eta helburuen fluxu-mapak.
- Epe ertaina: eredia doitzea eta perfektionatzea, sorkuntzaren eta horren hedapenaren eta ikuspenaren ikuspegitik optimizatzen.
- Epe luzea: ereduaren funtzionamendua egonkortzea eta aldi behin ebaluatzea.

2.1.2. Konpentsazio Funtsak

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

- Liburu eta beste hainbat lanen maileguagatik konpentsazioari buruz Eusko Jaurlaritzak duen ikuspuntua egile-eskubideen kudeaketari buruzko estatuko eztabaida

¹ Ikus Euskal Kultur Ondarearen 7/1190 Legea eta kulturaren % 1en arau erregulatuak (204/1998 Dekretua eta 1999ko otsailaren 19ko Agindua).

orokorrera eramatea, Europako zuzentarauaren¹ eta bestelako estatu- eta erkidego-araudi erregulatzailen aplikazio-eremuan.

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

- Epe ertaina: horri buruz hartutako erabakiak legedia eta eraginkortasuna kontuan hartuz itzultzea.
- Epe luzea: ereduaren funtzionamendua egonkortzea eta aldian behin ebaluatzea.

2.1.3. Diru-laguntzak eta bekak

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

- Gaur egun sorkuntzarako eta sortzaileentzako dauden laguntzen egungo esparruaren egokitasunari eta egokitzeari buruzko hausnarketa, hainbat ikuspegitatik:
 - Arte-ekoizpenaren estimulua, enpleguaren ikuspegitik eta haren jardueraren ekonomia- eta enpresa-iraunkortasunaren ikuspegitik. Eta kolektiboaren babesean laguntzeko moduak, legedia espezifikorik izan ezean (ikus Eskandinaviako eredia, epe luzerako laguntzak, enplegu-erakundeekiko lankidetzak).
 - Ekoizpen Zentroak-Sorkuntza Fabrikak.
 - Errazteko balio duten beste hainbat elementu: Bidaiak, Bizitokiak, Prestakuntza/ ikerketa.
- Komunitateko bizitzarekin lotutako sorkuntza-jarduera: interface-a sortzaileen eta hezkuntza-munduaren, lan-munduaren, mundu ludikoaren eta abarren artean (ikus 2.2.2. eta 2.2.3.).
- Lan-ildoen kudeaketa eraginkorra perfektionatzea: epeak, sarbiderako eta eskabiderako moduak, eta abar.
 - Eragile desberdinen erakunde-eginkizunak koordinatzea eta optimizatzea: gainjarpenak versus inorenak ez diren lurak.
 - ...

¹ Europako 2006/115/EE Zuzentaraua (lehen, 92/100/EEE Zuzentaraua); Irakurketari, Liburuari eta Liburutegiei buruzko ekainaren 22ko 10/2007 Legea; eta Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legea.

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

- Epe motza: berritzailea izango den laguntza-eredu berri bat balioestea eta sortzea.
- Epe ertaina: hautatutako ildoak apurka-apurka ezartzea.
- Epe luzea: ereduaren funtzionamendua egonkortzea eta aldian behin ebaluatzea.

2.1.4. Sariak

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

- Arte-garapenaren fase bakoitzari (sortzaile amateurren eta gazteen arteko oinarrizko sustapena, nazioarteko proiektzioa behar duten artista ospetsuak, eta abar) estaldura eta zerbitzua emango dion sari sorta bat egituratzea, maila eta sari bakoitza aztertuz.
- Egun dauden edo sortu berriak diren sarien kudeaketa eraginkorrerako orientazioak eta baliabideak.
- Sariak hasierako laguntza-fasetzat hartzea, geroago aktibatzeko prozesuak behar dituen, balioa eta ikuspena emateko (laguntza).

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

- Epe motza: sarien mapa bat sortzea, dituzten hutsuneak eta aukerak identifikatuz, eta sariak kudeatzeko eta sarien inpaktua optimizatzeko orientazioak ezarriz (duten boterea aktibatzea).
- Epe ertaina: ezarritako orientazioak erakundeen arteko lankidetzaren esparruan aplikatu daitezkeen estimulatzea.
- Epe luzea: planteamendu berrien ondorioak balioestea.

2.1.5. Elkartek

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

- Elkartek politika publikoen dinamizaziorako eragile aktibo gisa duten eginkizuna optimizatzea, honako eginkizunak dituzten erakunde-laguntzen bitartez:

- Adierazitako erakundeen ekonomia-iraunkortasun autonomia sustatzea, mendekotasun-egoerak eta lotutako ondorio zitalak saihestuz.
- Elkarteen maparen arrazionalizazioa faboratzea, kuantitatiboki adierazgarriak eta nahikoak diren lan-kolektiboak bermatuz.

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

- Epe motza: dauden hitzarmenak lehen adierazitako ikuspegiaren arabera berrikustea.
- Epe ertaina: gremioen eta/edo lurraldeen ahalegin partzialak eransten dituzten erakundeen sorkuntza faboratzea, eta baita sortzaileen elkarte-ikuspena termino horizontaletan ere, bakoitzaren diziplina alde batera utzita. Sorkuntzan laguntzeko politiken esparruan elkarrekin izan ditzaketen eginkizun aktibo berriak bilatzea (ikus 2.2.2. eta 2.2.3.).
- Epe luzea: planteamenduen balantzea egitea, eta horiek berrikustea eta egokitzea.

2.1.6. Laguntza pribatuko funtsak

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

- Arteetan modu pribatuan parte hartzea faboratzen duten zerga-pizgarrien eta baliabide juridikoen jakintza eta erabilera hobetzea.

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

- Epe motza: egungo lege-esparruaren berri emateko eta hura hedatzeko kanpaina, baita sortzen diren aukerei dagokienez ere. Eskaririk datozen esku-hartzeekin lotzea.
- Epe ertaina: zerga-eragile eskudunekin hausnarketa partekatua izateko foro bat sortzea, dagoen lege-esparrua berrikusteko eta perfektionatzeko.
- Epe luzea: dauden politikak berrikustea eta perfektionatzea.

2.2. SORKUNTZA ESKARIA: EZTABAIDARAKO ELEMENTUAK

2.2.1. Kultura-kontsumoaren hobari ekonomikoa

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

- Kulturaren demokratizazioan laguntzeko esku-hartze partekatuen koordinazioa faboratzea, lurraldeei eta erakundeei dagokienez heterogeneoak izan daitezkeen jardun gehiago sortzea sailhestuz (txartel ugari, abanataila/desabantaila konparatiboak, aukeren berri ez izatea, eta abar).
- Eraginkorragoak direla egiaztatu bada, kultura-kontsumoan laguntzeko formulen alde agertzea apurka-apurka.

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

- Epe motza: apurka-apurka, erakunde SARE bat sortzea, kultura-kontsumoaren hobari ekonomikoetarako jardunen aplikazioa koordinatzeko, eta emandako onuren aplikazioaren unibertsaltasuna (kultura-txartel bakar baten edota beste formularen baten —elkarrekikotasuna— ideia edota bestelako ideietara hurbiltzea): esperientzia pilotuak sortzea.
- Epe ertaina: esperientzia pilotuetan ikasitakotik abiatuz, erakunde sarea areagotzea.
- Epe luzea: dauden neurriak eta horien eraginkortasuna, efizientzia eta inpaktua ebaluatzea. Eredua perfektionatzea eta doitzea.

2.2.2. Eskolan/eskolatik gauzatutako ekintza: haurra eta gaztea lan-kolektibo estrategiko gisa

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

- Eskoletan arte- eta kultura-hezkuntza ematea sustatzea, sorkuntza-sentsibilizazioaren eta haren eskariaren estimuluaren oinarri gisa.
- Kultura eta hezkuntza optimizatzea, gizarte-kohesiorako baliabide gisa.
- Hezkuntza eta Kulturaren hurbilketa eta erakunde-lankidetzeta faboratzea, baterako ekimen berritzaileak gauzatzeko.

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

— Epe motza: hurrenez hurren, honako hauek estaliko dituzten bi esperientzia pilotu diseinatzea eta abian jartzea:

- 1. esperientzia: hezkuntzaren eta Kulturaren arteko lankidetzaren, baterako hezkuntza-ekimen berritzaileak gauzatzea ahalbidetuko duten kultura- eta arte-egiturak sortzeko (museoak, antzokiak, zinemak, enpresak, eta abar).
- 2. esperientzia: eskolaren, kultura- eta sorkuntza-sarearen (sektoreko elkarteak) eta gizarte-zerbitzuen artean loturak sortzeko dituen programa espezifikoak, kolektibo eta/edo toki behartsuei arte-gaitasunak hartzeko eta ahalmen kritikoa eta harreman-ahalmena izateko aukerak eskainiz, artistekin ikaskuntza-esperientziak izan ondoren.

— Epe ertaina: programa pilotuak balioestea, doitzea eta areagotzea, honako hauen bitartez:

- Lehen kasuan —1. esperientzia—, Hezkuntza/Kulturaren lankidetzarako dinamika instituzionalizatzea, hura ikastetxeen curriculumetan apurka-apurka sartzeko. Erakundeei ahaleginetan laguntzea, bi mundu horietako profesionalentzako elkarguneak sortuz, horien hedapena eta horri buruzko jardunbide egokiak faboratuko dituztenak, hain zuzen ere.
- Bigarren kasuan —2. esperientzia—, hezkuntzaren, kultura-ehunaren (elkarte profesionalak) eta gizarte-zerbitzuen arteko lankidetzarako programak hitzarmenen bitartez instituzionalizatzea.
- Lurralde- eta/edo sektore-mailan figura espezializatuak sortzea, hezkuntza- eta kultura-programak eta hezkuntza- eta kultura-programa sozialak —lehen adierazitakoak— dinamizatzeko eta garatzeko.

— Epe luzea: dauden politikak berrikustea eta perfektzionatzea.

2.2.3. Arte amateurra eta arte prestakuntza ludikoa

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

— Toki-testuinguruan polarizazio handia duen lan-esparrua denez gero, eta horretaz gain, jarduera-eskaintza zabal eta heterogeneoa duenez, Kultura Sailaren ekarpena honako hauek kontuan hartuz planteatzen da:

- Begirada integral eta integratu baten ekarpena.

- Tokiaren zerbitzura dagoen elkarte-mundu sortzailearen optimizazioa.
- Esperientzia berritzaileak abian jartzea.

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

- Epe motza: toki-esperientziak elkartrukatzeko eta berezko eta nazioarteko jardunbide egokiak hedatzeko foroa.
- Epe ertaina: arte amateurraren eta toki-eremuan gauzatutako arte-prestakuntza ludikoaren esparruan elkarte profesionalak duten eginkizunera hurbiltzea eta hura balioestea (ikus 2.1.5 esku-hartzeak).
 - Sorkuntza eta jakintza lan-munduarekin bateratzeko bideak miatzea. Arte-elkarte profesionalen eta enpresa- eta sindikatu-erakundeen arteko lankidetzarako bide posibleak identifikatzea.
- Epe luzea: esperientziak balioestea eta lan-proposamenak edo -ereduak doitzea.

2.2.4. Goi-mailako arte-prestakuntza

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

- Bizitzan zehar sorkuntza-diziplinen esparruan hezkuntza- eta prestakuntza-sistema bat finkatzea, lan-merkatuaren premiak beteko dituen eta herrialdeko berrikuntzan eta sormenean lagunduko duena.

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

- Epe motza: erdi-mailako eta goi-mailako prestakuntza arautuekin —abian daudenekin— lotutako proiektuak zehaztea.
- Epe ertaina: doako etengabeko prestakuntzako garapen-bideetan kultura-sektorea txertatzea (Hobetuz, Hobarien Sistema, eta abar) sektoreko langileentzat. Prestakuntza-eskaintza arautuaren garapenean laguntzea, irakaskuntza-establezimenduetatik ateratako pertsonen jarraipena eginez, eta informazio horrekin hezkuntza-bideak elikatzea, bete gabekolanbide-hutsuneak atzemateko eta lanbide-saturazioko esparruak saihesteko.
- Epe luzea: esperientziak balioestea eta lan-proposamenak edo -ereduak doitzea.

2.3. GIZARTE ETA LAN BALDINTZAK: EZTABAIDARAKO ELEMENTUAK

a) Testuinguruan jartzea eta helburuak:

- Esku-hartze publikoko esparru bat dugu, lan-, gizarte- eta zerga-leggediekin lotuta dagoena, eta zuzenean Kultura Sailaren mendekoa ez dena.
- Estatuko eta Europako irismena duten eztabaidetan eta esparru arautzaileetan kokatuta dago.
- Testuinguru horretan, Kultura Sailaren azken helburua bere ikuspegia dagozkion testuinguru arautzaileetan txertatzea litzateke, eta ondoren, esku hartzea, bere eskumenei dagozkien bide paraleloetatik atzemandako premiei aurre eginez.

b) Esku hartzeko aldi baterako orientazioak:

- Epe ertaina: gure errealitatera ekarri daitezkeen eredu eta esperientzia interesgarri posibleak miatzea. Eta foro arautzaile eskudunetan eragile aktibo gisa parte hartzeko baldintzak sortzea.
- Epe luzea: aurrerapausoak, lorpenak eta premiak balioestea.

Eranskina

INFORMAZIO ITURRIAK

- 1. Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea (UNESCO)**
Artistaren gizarte-egoerari buruzko munduko Behatokia
Artistaren egoerari buruzko gomendioa, UNESCO Erakundearen Konferentzia Orokorraren bitartez onartua.
Study relating to the various regimes of employment and social protection of cultural workers in the European Union. European Arts and Entertainment Alliance (EAEA).
- 2. European Cultural Foundation**
Labforculture
- 3. European Commission-Culture**
- 4. Europako Parlamentua**
The status of artists in Europe.
Mobility of artists and social security
Financing the arts and culture in the European Union
- 5. ERICarts Institute**
Compendium of Cultural policies and trends in Europe
- 6. Eurostat. Kultura-estatistikak**
- 7. Erakunde publikoek Europako sorkuntza eszenikoetan laguntzeko dituzten jardunbideak eta ereduak**
(Tony Gonzalez; Escena Internacional BCN)
- 8. Informal European Theatre Meetings (IETM)**
Tax and Social Security, a basic guide for artists and cultural operators in Europe
- 9. Arteen Kontseiluen eta Kultura Agentzien Nazioarteko Federazioa (IFACCA)**
Arts and Artists in Europe: New Challenges.
- 10. Arts Council Ireland**
The Creative Imperative. A Report on Support for the Individual Artist in Ireland
- 11. Ministère de la culture et la communication (Frantzia)**
Département des études de la prospective et des statistiques (DEPS)
- 12. Cultura.fr. Le portail de la culture**
- 13. British Council**
- 14. Arts council England**
- 15. Arts council Wales**
- 16. Arts council Northern Ireland**
- 17. Scottish arts council**

- 18. Norsk kulturrad (Arts Council Norway)**
- 19. The Danish Ministry of Culture**
DanishArts.info
- 20. Swedish Arts Council**
- 21. Espainiako Kultura Ministerioa**
- 22. Eusko Jaurlaritza**
Kultura Saila: Laguntzak eta Diru-laguntzak
- 23. Arabako Foru Aldundia**
Kultura: Laguntzak eta Diru-laguntzak
- 24. Bizkaiko Foru Aldundia**
Kultura: Laguntzak eta Diru-laguntzak
- 25. Gipuzkoako Foru Aldundia**
Laguntzak, Bekak eta Diru-laguntzak

Lan honen bibliografia-erregistroa **Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren** katalogoan aurki daiteke:
<<http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteka>>.



Argitaraldia: 1.a, 2010ko martxo

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Internet: www.euskadi.net

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa: AIC, Gestión de Capital Intelectual S.A. - www.factoria-aic.com

Lege-gordailua: VI 83-2010